



GURE KIROLARIEN ASTEBURUKO EMAITZAK

Zizurkilgo Danena Halterofilia taldeko kideek hilabete oparoa bizitu dute; azaroaren 10ean Madrilera joango dira 6-7

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2010-11-02

VIII. URTEA 2.115. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Hungariako gaztetxoek eraman dute Abesbatza Lehiaketako Sari Nagusia

TOLOSA Cantemus Children's Choir haur abesbatzak ordezkatu du herria Europako Sari Nagusian

ETXEKOAK Hodeiertz eta Oroith abesbatzek osatutako taldeak hirugarren postua lortu du folklore sailean 4-5



Sari Nagusia nork irabazi zuen herenegun iluntzean jakin baldin bazen ere, Cantemus-eko abeslariak atzo oholta gainean jakin zuten albistearen berri, zuzendariak ez baitzien esan. A. IMAZ

PABLO SASTRE IDAZLEA

«Mundua, kapitalismo mundializatu horren azpian hartuta ikusten dut»

KULTURA Elkar argitaletxearekin 'Gizajendearen ahitzea' liburua aurkeztu berri du Tolosan bizi den idazleak 2-3



M. UGARTEMENDIA

kan kak

Azaroaren 30 arte %10eko deskontua iragarkia erakutsiaz

%10 deskontua

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

E Elkarriketa**PABLO SASTRE** | Idazlea

Tolosa» Pablo Sastrek bere azken lana aurkeztu berri du. 'Gizajendearen ahitzea' da bere bigarren saiakera hau.



MAIER UGARTEMENDIA

MAIER UGARTEMENDIA

Duela astebete inguru aurkeztu zuen bere azken lana Tolosan bizi den Pablo Sastrek (Madril, 1958). Orain arte gehienbat narrazioak eta nobelak argitaratu izan baditu ere, bere azken bi lanak saiakerak dira. Aurkeztu berri duen liburua *Gizajendearen ahitzea* da, eta bertan idazleak sentimenduen espazioak arakatzeko ditu. Ba ote dago sentimendu guztientzat lekurik gaur egungo hirian? Galdera honi eta beste batzuei erantzun die Pablo Sastrek elkarriketa honetan.

Orain dela astebete inguru aurkeztu zenuen zure azken lana, *Gizajendearen ahitzea*. Zer moduzko harrera izan du?

Beno, harrera oraindik... Hori prentsaren aurreko aurkezpena zen, beraz, oraindik erreakzio publikorik ez da izan. Zenbait lagunek irakurri dute, eta interesarekin irakurri ere, esan didatenez. Baina, oraindik egunkarietan edo beste kritikarik jaso gabe dago.

Zure idazle ibilbidean nobelak eta narrazioak argitaratu dituzu gehienbat, baina, azken bi liburukak saiakerak dira. Lehena *Gauzen presentzia 2007an* eta *Gizajendearen ahitzea* orain. Zer dela eta norabide aldaketa hau? Gogoetarako garaia iritsi al da?

Bai, gogoeta beti egin izan dut, baina gehienetan artikulatu forma hartu izan du gogoeta horrek. Artikulatu dezente idatzi izan ditut zenbait garaitan. Nazioarteko iritziak denboraren batean, horretan espezializatu nintzen. Gero, denetarikoa, politika baino gehiago gai sozialak, edo Abiadura Handiko Trena dela eta, progresua dela eta, edo horrelako iritzi dezente publikatu izan ditut. Eta gero, orain dela hiru lau urte, ez dakit zergatik, iritzi horiek liburu forma hartu zuten: *Gauzen presentzia*. Segida eman nahi nielako edo, orain beste hau idatzi dut *Gizajendearen ahitzea*.

Zer esan nahi duzu *Gizajendearen ahitzea*-rekin?

Titulua azken ordukoa da, baina ideia *Gauzen presentzia*-tik dator. Gure inguruan erabiltzen ditugun gauzak nondik datozen, zertan eta zergatik erabiltzen ditugun. Oraingo honetan gehiago bideratu dut hausnarketa hori sentimenduen aldera. Orduan, zer sentitzen dugu? Bai, erabiltzen ditugu gauzak, erabiltzen ditugu zerbitzuak. Hala nola, eskolak, edo lantokiak, edo ospitaleak, edo beste... Zein diren jendearen sentimenduak eta hainbat eta hainbat gauza, edo beste modu batean esateko, oraingo kapitalismoaren munduan oro har, eta Europan partikulariki, zer sentitzen duen jendeak. Zertara iritsi garen, eta agian, pixka bat begiak luzatuz, gerora norantz ote goazen.

Zure azken lan honetan hiria duzu mintzagai. Ba al dago sentimen-

duentzat lekurik gaur egungo hirian?

Bai, sentimenduentzat bai. Esaten dena da, sentimendu batzuentzat. Beharbada, sentimenduak asko aldatzen dira. Zuk esan nahi duzu maitasuna eta beste sentimendu batzuek, solidaritateak edo... toki gutxiago ote daukaten. Eta beharbada, ondorio horretara iristen naiz beste askoren artean.

Sentimenduak bai, sentimenduak beti daude. Sentimendu horiek izan daitezke oso kondizio txar eta gogorretan gorrotzkoak; izan daitezke axolagabetasunezkoak, beharbada nagusiki orain ikusten dudana; izan daitezke baita ere beldurrezkoak, nahiko jarria dagoena gure artean; eta bestelako sentimenduak ere bai. Sentimenduak jende humanoak, edo gizajendeak, beti baditu sentimenduak. Baina, haien eboluzioa edo begiratzen dut liburu honetan; no-

lako den, eta lehen esan dizudan bezala, norantz ote goazen.

Liburu guztian zehar gaur egungo progresuaren kritika bat egiten duzu. Horretarako sarri eztaba-dagai izan diren hainbat gaien inguruko gogoeta egiten duzularik: emakumeen egoera, etorkinak, hiria vs. herria, heriotza, makinarik gabeko eta makinadun mundua...

Bai, horixe da. Azkenean, hausnarketak banarama behar bada, nagusi diren horrelako gaitetara. Esate baterako, gizonen eta emakumeen sentimenduez nabil. Nahiko nagusi da instituzioen aldetik berdintasunaren ideia. Ideia horren inguruan, zer den berdintasun hori; edo zer nahi den; eta noraino ongi bizi ote duten gehienbat kasu honetan emakumeek. Hortaz pixka bat luzatu egin naiz. Gero, hirian etorkinak, eta zuk esan dituzun beste gauza horiek ere aipatu ditut.

Atal bat eskaintzen diot teknologiarari, oraingo makinek zer sentimendu sortzen dizkiguten. Berezik, lehengo makinen aldean. Bilakaera bat dago. Makinek geroztan, agian, mundu urrutiagoetara eramaten gaituztela. Lehengo makina batzuk, orain dela ehun urtekoak, nolakoak ziren; kontrolpekoak. Eta oraingo makinak, nagusi diren makina gehienak, informatikazkoak dira. Oso gure gainean dauden bezala ez ditugu kontrolatzen, ez dakigu zer egin matxuraren bat badago edo. Oso makinen menpekoak gara.

Eta horrek elkarrekiko harremanak urruntzen ditu...

Horrek harremanak aldarazi egiten ditu. Esate baterako, nik ez nuke esango Internetez harreman gutxiago edo gehiago dagoenik. Badira bi ikuspegi. Bata oso positiboa: zein ondo! Internetekin harremanak ugaritu eta askoz erra-

Hamaika
ikusteko, bizitzeko

bat etabate

ASTELEHENETIK OSTRALERA 21:00-etan
Eguneroko albistegi-magazina.



SINTONIZATU EUSKALDUNOKIN: LTD BIDEZ (eskatu antenariari), ELISKALTEL BIDEZ (11 edo 911), www.hamaika.tv



» FITXA TEKNIKOAK

- **Izenburua.** 'Gizajendaren ahitzea'.
- **Idazlea.** Pablo Sastre.
- **Argitaletxea.** Elkar.
- **Generoa.** Saiakera.
- **Orriak.** 139.

zago komunikatu gaitezke munduko edozeinekin! Kontrakoa ere ez nuke esango, Internetek adibidez urrundu egiten gaitu. Aldarazi, aldatu egiten dira harremanak. Nik uste harreman kopurua berdintsua dela, baina aldatu egiten da. Hain fisikoa izan gabe, edo hain zentzumenezkoa (begi bistakoa; ukimenezkoa edo usaimenezkoa), zentzu edo sentimendu zuzenak pixka bat bazter batera utzi eta harremana askotan gauza hotzago bat bezala bihurtzen da. Bakoitzak bere interesak dituela egiten ditu harremanak. Lagun batzuk aukeratzeko dira, gutxiago sentibilitate aldetik eta gehiago supermerkatuan gauzak erosiko liritekeen bezalaxe. Horrelakoxe lagun hau bat egiten da.

Liburua irakurtzean, nolabait denboran atzera egitea gustatzen duzue. Zer nolako gizarte sortzen ari gara?

Bai, sortzen ari gara... Guk zeresan gutxi..., behar bada asko izan behar genuke. Noraino dagoen gure esku. Hori da hausnartzeko gaietako bat. Noraino garen gai eboluzio honetan, edo berak garatzen, ez dakigu nora. Pixka bat makina handi baten mendekoak gara eta hark bagaramatza. Orduan, nora ote goazen ez dakigu. Guk jakin dezakeguna da, zuk esaten duzuna, lehen zer zegoen.

Agian, progresu zalerik handienek ukatu egiten dute lehenaldian ezer onik zegoenik; eta gero badira baita ere historia zale erradikalak bakarrik atzean gauza onak daudela ikusi nahi dutenak. Ez bata ez bestea, noski. Baina, gauza batzuk ikasi ditzakegu lehen alditik, geroa nola izan daiteke irudikatu nahi horretan... Gero eta makina gehiago erabiliko ditugu, gero eta bidaia azkarragoak egingo ditugu... Makinak horrantz garamatza, baina, guretzat ona ote da? Guk betarik edo abagunerik ba ote dugu hori erabakitzeke, horretaz hausnar egiteke? Ba ez, ez dugu. Orduan, begira ditzagun historiaren edo beste mundu batzuetako etsenpluak, orain Afrikan edo bestetan gertatzen ari dena... Askotan eta askotan pentsatzen dut onazango litzatekeela beraiek ez abiatzea guk hartu dugun bidetik. Guk haiengandik ikasi, eta hartu ere bai, ez dadin harreman unibokoa izan edo nolabait alde bakarrekoa. **Hala ere, gaur egun kulturen arteko nahasketa bat dago. Zuk liburuko momentu batean ere honela diozu: «Nor ez da etorkin kultur arrasatze garai honetan».**

Hori da, denok gara ezta? Zeren, globalizatzeko edo mundualizatze deitzen den horretan badabidenez gusi bat. Eta beste guztiak eranskina bezala gara hor. Berdin du Mallikoa edo Euskal Herrikoa izan. **Benetan deigarriak dira liburuan zehar egiten dituzun idazle ezberdin askoren aipamen guztiak. Eva Forest, zure ama zenarenak, Franz Kafkarenak edota Mikela Elizegirenak besteak beste.**

Bai. Sentimenduez jardutea erabaki nuenean, horren inguruan irakurri behar dut pentsatu nuen. Azken urteetako agerkariekin edo jendearen orduko iritziekin konparatzeko. Horretarako hainbat liburu teoriko irakurri nituen, oraino literaturarekin batera. Hor aipatzen dituden liburu gehienak azken bi urte hauetan irakurritakoak dira. Lehenago irakurritako liburuen oharrak pixka bat jada galduta neuzkan, edo jada ahaztuak. Horien artean dago gure amak duela hiru urte argitaratu zuen *Los nuevos cubanos* liburu ederra. Baita Pello Errotaren bizitza ere. Heriotzari buruz hainbat iritzi daude hor, zer pentsatua

ematen dizutenak. Edo nola bizi izan zuen Mikela Elizegi zizurkildarraren familiak heriotza eta orain nolako bilakaera izan duten sentimendu horiek; heriotza nola askoz ezkutatuago dagoen eta beste.

Ez da harritzekoa liburu artean ibiltzea, jaio zinenetik literaturaz inguratua bizi izan zara eta.

Bai, ez du determinatzen, baina, lagundu egiten du.

Bi ezusteko ere aurki daitezke liburuan zehar. Alde batetik bi argazki eta bestetik *Kutxa* izenburuko kontakizuna. Oroitzapenen *Kutxa* izan daiteke, ezta?

Halaxe da, oroitzapenen kutxa edo sentimenduen kutxa. Liburuaren izenburuak ere horrela izan behar zuen hasieran: *Sentimenduen kutxa*. Orain lau orrialdeetan dagoena, hasieran nobela bat zen. Liburuaren erdia zen, baina, laburtzen joan nintzen, eta azkenean hor gelditu da, lau orrialdeetan. Baina, garrantzia du: Liburuaren Pedro izeneko pertsonaia bat agertzen da. Usez bera da liburu hau idatzi duena. Orduan, biga-

«Bakoitzak bere interesak dituela egiten ditu harremanak, lagun hau bat egiten da»

«Globalizatzeko edo mundualizatze deitzen den horretan gu eranskinak bezala gara»

«Mundua, kapitalismo mundualizatu horren azpian oso hartuta ikusten dut»

ren atal horretan ikusten da Pedro nola idatzi duen liburu hau. Bere azken egunak izan litezke, eta egun horietan horinola idatzi zuen eta zelako akabera edo heriotza izan zuen.

Argazkiei buruz berriz, 60. hamarkada inguruko argazkiak dira. Ni oso txikia nintzela Madriletik Castilla aldera, buelta bat egitera, ikusnizakeen irudiak dirabi horiek. Neuretzat garrantzitsua da, neure sentimenduei begira.

Nondik natorren, nondik gatozen, erreferentzi bat izateko garaian horrelako argazkiak niretzat ispilu bat dira. Eta asko esan nahi dute niretzat bi argazki horiek... Jendearen izateko modua, bizimodua, poza ere antzematen da, oso esanguratsua da niretzat.

Zure aurreko saiakeran lehen pertsona erabili zenuen, baina, oraino zuek esan duzun bezala, hirugarren pertsona idatzi duzu, Pedro izeneko pertsona izenean. Ez da erraza sentimenduen beste aurrean azaltzea ala objektiboago izateko modu bat da?

Zergatik izan den horrela? Ez dakit oso kontzientea izan den, sentimenduen azaltzeko ez baitut arazorik gehienetan. Memento batean baliatu egin naiz pertsonaia horretaz, batzuetan hori gertatzen da, besterik gabe. Oraingo honetan aukera hori sortu da. Besterik gabe.

Esan al daiteke liburu honek terapiaren egiteko lagundu duzula?

Ez, ezin daiteke esan. Baina, zerbait idatzen denean edo esaten denean, elkarrizketa bat dagoenean, beti dago askatze bat; barruan dagoena atera egiten da, ondorioz, lagungarria izan daiteke.

Geroa zer moduz ikusten duzu? Progresuan oinarritutako mundu honek horrela jarraituko duela uste duzu?

Nik susmo hori dut, zoritxarrez. Gure artean esate baterako, gure asmo independentistak badu nolabait etorkizuna aurrera egiteko. Baina, sozialismoaren aldetik oso zaila da. Mundua ikusten dut kapitalismo mundualizatu horren azpian oso hartuta, herrialde guztiak horrela ikusten ditut. Demokrazia izenekoak, diktadura izenekoak edo komunismo izenekoak ere habi horretan ikusten ditut. Ez naiz arunt optimista, baina beti ere sinesten dut ari denak, zerbait ari denak, hark baduela askatasuna. Borrokan aritzen dena bada jada libre, badu berez libertate bat, besteek agian ez dutena. Orduan, ari izatea lotzen dut askatasunarekin edo gero hobeko batekin. Ari dena bada. Ez dena ari mamuen munduko da, agian, gehiago. Aritzea, ez du esan nahi ekintza modu batekoetan aritzea, baina beno, gizartearen izatea, besteekin izatea.



MAIER UGARTEMENDIA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak, garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, ema-

kumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota umeak zaintzeko, esperientziadun emakumea lanerako eskaintzen da. Interesatuak, deitu 659 07 75 91 zenbakira. Jone.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Lizartza Udal etxebizitza tasatuak

Ezertako muga baino txikiagoa den prezioan eskaintzen ditugu, udalak eta sustatzaileak finkatu dituztenak.

Agenda zabalde azaroren 11 baino lehen

Argibideak: **Lizartza Udala** | **Sustatzaileak**

943 678 760 | 638 686 147

www.lizartza.com | www.torra.es

Sari Nagusia Cantemus Children's Choir abesbatzak eraman du

Kultura » Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan Hodeiertz eta Oroith abesbatzak hirugarren saria lortu dute folklore sailean.

Txapel gehien jantzi zuena, baina, Brady Allred zuzendaria izan zen. Ahots nahasieta Salt Lake Choral Artists Chamber Choir zuzendu zuen eta bai polifoniaman eta bai folkloren lehen saria eskuratu zuen. Ahots taldearen Salt Lake Vocal Artists taldearekin lehiatu zen eta musika profanoan eta eskuratu lehen saria jaso zuen. Publikoaren saria ere bere-

ganatu zuen lehenengo taldearekin. Brady Allred-ek gela bat egin behar zuen esan zuen hainbeste txapel gertatzen. Sari Nagusiko oso gerta garrantzirik, bigarren postean. «Oso gustura gaude Hungariako abesbatzak eraman duela Sari Nagusia, zioen Allred-ek, «beste abesbatzen maila ikusita ez genekien nola arloko

ginen. Horregatik, oso pozik gaude lortutako emaitzarekin. **Exekoak, bikain** Hodeiertz eta Oroith abesbatzak hirugarren saria lortu zuten folkloren mailan, University of Delaware Choral-ekin berdin. Sari Nagusian, non pumaketa orokorra antzartu baitzen den, bigarren geratu ziren.

» 42. ABESBATZA LEHIAKETA

Kutxa Sari Nagusia
• Cantemus Children's Choir, Hungaria.

Publikoaren saria
• Salt Lake Choral Artists Chamber Choir, AEB.

Haur abesbatzak
• 1. Cantemus Children's Choir (Hungaria).
• 2. Cor Infantii Amici de la Unio (1. Herrialde Katalanek).
• 3. Lepsates (Lituania).

Ahots taldeak musika sakratuan
• 1. Salt Lake Vocal Artists (AEB).
• 2. University of Delaware Vocal Group (AEB).
• 3. Animo Vocal Ensemble (Erusia).

Ahots taldeak musika profanoan
• 1. Salt Lake Vocal Artists (AEB).
• 2. University of Delaware Vocal Group (AEB).
• 3. Vocal Group Dyvo (Ukraina).

Ahots nahasiak polifoniaman
• 1. Salt Lake Choral Artists Chamber Choir (AEB).
• 2. University of Delaware Choral (AEB).
• 3. Extrachord (Alemania).

Ahots nahasiak folklorea
• 1. Salt Lake Choral Artists Chamber Choir (AEB).
• 2. Coro de Camara Mikrokosmos (Frantzia).
• 3. Berdimeta: Hodeiertz-Oroith (Euskal Herria) eta University of Delaware Choral (AEB).



Salt Lake Choral Artists Chamber Choir taldeak polifoniaman eta folklorea lehen saria jaso zuten. e. lizaso

EZIZIA GARCIA

Hungariako Cantemus Children's Choir-eko abeslariak pozez zorrotzen oihuka hasi ziren Leidorreko eszenatik bertan. Denes Szabo zuzendariak herenegun gauetan jakin zuen lehen saria euren zela, denek bezala, baina azora arte ez ziren horren bertan abeslariak. Hungariako abesbatzak ordezkatuko du, bera, Tolosako Lehiaketa Europako Sari Nagusian. Hain zuzen, datorren urteko lehia Tolosan bertan izango da. Haur Abesbatzen lehen saria ere eskuratu zuen Cantemus-ek eta baita euskal abeslariaren interpretazio onaren emandakoa ere.

2011 agenda

Dagoeneko salgai!



Liburu dendetan
www.euskalherrikoak.com

Ezugarriak:
• Hiru urtetako egutegia
• Intereseko telefonoak
• Euskal Herriko errepide mapa
• Aste osoa luzeagik

ALBERTO GAZTANBEREKO **berria**

Hau pagotxa



» Iritzia
Mikel Zeberio
Abesbatza zuzendaria

Berriro eraman, gozatzeko amon-tan etorri garen Tolosako Abesbatza Lehiaketara. Holburua bete dugu esbairik gabe. Lehenbiziko lehiaketa erantzun ondok, bada taldeak edozein inuzkintzat. Era askotariko, jatorri desberdineko eta agurra oso bestelakoetan antolatutako taldeak izan dute aukera elkarren artean lehiatzeko. Talde hainzuen, artearen eta edertasu-

betek, guztiak dira larre gozo beraien zati. Broadway txikia bihurtu zuten Leidor antzokia. Hungariako Cantemus neska kora berriz, ilusgarritasun puzkorrik gabe, gailendu egin zen guztiaren ginetik. Beraien herriko kora jakin duaren gordailu den D Szabo buruan, Kodaly bezalako musikari eta pedagogok joan den mendean hasitako lanaren fruiturik goxoenak dastatzeko aukera eman ziguten. Izebergaren oinarriaren ordea, han ziren beste hamarko kora. Tartirik ez denentzat; Haurren sailan, Leio de Oro sarturako oso guztxo eta naturala. Amics de la Unio kataluniarra, urteetan orotara bertu duen talde atsegina. Liepaites lituaniarra, potentzial handiko nerabe taldea. Gastezko Crescendo, pedagogian lan eskerga burutzen den taldea. Helduen taldeak ere antzitz; Rodina, bulgariarra bat, eskasa baina umila, giro oneko silara.


Esloveniako Orfej goztoak gorapizkoak. Extracord alemaniar gazte hauek tentuz zuzendutak, talde interesgarriak iruditu zitzaizkidan. Delaware Unibertsitateko AEB-taldek ere lau sari ertain jasotzeko moduko lana burutu zuten. Beroen herrikoideen antzerki jeltza gutxiak orotara zerien. Suediako Pios, E. Besberg maitu entzutesuaren eskutan Japoniar eraman gaituena. Japoniako Kibe, galea, lehia, oriental-espirtualitatekoak. Frantziako Mikrokosmos, alimaleko ekipoa, profesionala, fabrikatzailearen jantziak denbora hartzerik ez duen horietakoa. Ukrainiako Reissanso, talde txiki, polita eta zuzendaria argia, guztiak batera ordea irregularrak ziren. Eta abar. Zerrenda amaiezina bihurtzerik nahi ez nukeen kontua. Gizon emakume emankorrek guztiak, bere jarria zurrupa diezagoen bertaratutako zuzendariak. Hau pagotxa

betek, guztiak dira larre gozo beraien zati. Broadway txikia bihurtu zuten Leidor antzokia. Hungariako Cantemus neska kora berriz, ilusgarritasun puzkorrik gabe, gailendu egin zen guztiaren ginetik. Beraien herriko kora jakin duaren gordailu den D Szabo buruan, Kodaly bezalako musikari eta pedagogok joan den mendean hasitako lanaren fruiturik goxoenak dastatzeko aukera eman ziguten. Izebergaren oinarriaren ordea, han ziren beste hamarko kora. Tartirik ez denentzat; Haurren sailan, Leio de Oro sarturako oso guztxo eta naturala. Amics de la Unio kataluniarra, urteetan orotara bertu duen talde atsegina. Liepaites lituaniarra, potentzial handiko nerabe taldea. Gastezko Crescendo, pedagogian lan eskerga burutzen den taldea. Helduen taldeak ere antzitz; Rodina, bulgariarra bat, eskasa baina umila, giro oneko silara.

«Ezin izan dut gehiegi jarraitu Txapelketa, baina haurretan maila ez zen altuegia»

DENES SZABO » Cantemus Children's Choir-eko zuzendaria

Kultura » Europako Sari Nagusiko lehia guztietan hartu dute parte, baitaean izan ezik, baina onena Tolosakoa dela diote.



I GARCIA / E EZIZIA

Hungariako Cantemus Children's Choir-ek irabazi du 42. Abesbatza Lehiaketa, eta hainbat batera, datorren urtean hemen bertan jokatu den Sari Nagusirako txartela. 40 neskek osatzen dute abesbatza, eta zuzendaria, Denes Szabo, jakitza Tolosako betarantokohar dalesean daiteke. **Tolosan irabazteaz aspertuta egongo zara jakitea?** Ez, ez dago horren gaizki. Oraindik ez naiz aspertu. Promusical abesbatzarik besta be lehiaketan hartu nuen parte Tolosan, eta irabazi egin genuen. Bestalde, Cantemus Mixed Choir-ekin sari guztiak irabazi genituen.

Eva Ugalderen Dizidzka zeraon abeslari zer iruditu zaizue? Neskei asko gustatu zitzaion. Erraza zen ikasteko, eta azkar egin ahal izan zuten. Atmosferaso onarekin sortzen laguntzen zuten, Gabonetako giroa erraz zabaltzen laguntzen zuten. Abestu eta lantzerakoan, nabari zitezkeen, egileak zer sentitu zuen hasi egiten zion.

Nola ikusi duzu Txapelketa? Ezin izan dut gehiegi jarraitu. Hala ere, entzunaldakoren arabera, ahots nahasieta eta helduetan abesbatza oso onak zeuden. Baina, haurretan, maila ez zen altuegia. Denen den, guk ezin izan ditugu abesti guztiak entzun, batzuk bakarrik, eta hauetan, zati ezberdinek. Korogaitza isko egin dituzte baina abestu guri.

Datorren urtean berriro, Tolosara itzultzeko zarete. Bai, zuzendariaren aldia izango da hurrengo urteko. Duela urte batzuk ere etorri ginen Tolosa, Sari Nagusian parte hartuz, baina or-

duan, estatu-haurrak izan ziren garaile. **Abesbatza Lehiaketan esperientzia handia duzue.** Europako Sari Nagusiko txapelketa guztietan egon gara, batean izan ezik, Barnakoan hain zuzen ere. Baina Tolosakoa da onena. Honegatik gustatzen zaizkigu horrenbeste euskaradunak. **Tolosan, lagun handiak ere egin dituzte.** Luis Zeboriori aipamen berezi bat egin nahiko nioke. Izan ere, 1989an etxatuta nuen bera, eta ondutik asko lagundit. **Zergatik ez diezu esan nahi izan, azkeneko unera arte, abesbatzako ikasle, berriak irabazi dituela Sari Nagusia?** Horrela hobe delako, nik nahitago dut. Ez nahi gaitza ikasi daiteke horrela, zer suposatzen duen honet abeslariarentzat. Denen den, tarte horretan, zaila izan da emaitza islapen gertatzea. **Nola bizitu duzu, gastezkoek Tolosako Abesbatza Lehiaketa?** Oso interesgarria izan da bertan izate, eta asko gustatu zaie. Hala ere, eszenatokiaren atzetan, itzaronen, denbora tarte luzeak igarodituzte. Berriak duten diziplinari bost minutu nahikoa dituzte, eta ez hoge, hemen egin dituzten bezala.



Katlin buruak, Oroith abesbatzako zuzendaria, eta Enrike Azurza, Hodeiertz abesbatzako zuzendaria, hirugarren sariarekin. e. lizaso



Aldarrikapena, Leidorreko atean

» Iritzia Leidor antzokiaren aurrealdean, 50 lagun inguru elkartu ziren, euskal preso eta iheslariaren egutegi salatzeko. Elviretiko kodeak, protestak eta elkarren baitan, eskuorriak banatu zituzten antzokira sartzen

zirenen artean. Bertan azaltzen zuten, nola, «Euskal Herria egon behar lukeen 740 preso politikoki departaturik dituzten, mila kilometro tartean esparririk ez duen Estatuaren zehar».



OPARI BAT ERAMAN ZURE EROSKETAREKIN BATERA IRAGARKIA ERAKUTSIJAZ (Azaroak 30 arte)

SAN FRANCITZSKO, 23 Tolosa
T.F. : 943655719
www.tantai-denda.com

E Emaitzak

PILOTA

LAU T'ERDIKO TXAPELKETA

FINAL ZORTZIRENAK

Abel Barriola	22
Oinatz Bengoetxea	15

HURRENGO PARTIDA,

FINAL LAURDENAK

Abel Barriola	-
Retegi Bi	-

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

Hernani	3
Tolosa	0

SAILKAPENA

1. Hernani (21 puntu); 2. Oiartzun (16 puntu); 3. Anaitasuna (16 puntu); **14. Tolosa (8 puntu)**.

HURRENGO JARDUNALDIA

Tolosa	-
Ordizia	-

ERREGIONAL PREFERENTEA

ZORTZIGARREN JARDUNALDIA

Aretxabaleta 'B'	2
Tolosa CF 'B'	1

Mutriku	4
Intxurre KKE	3

SAILKAPENA

1. Zestoa (20 puntu); 2. Mutriku (17 puntu); 3. Antzuola (17 puntu); **9. Tolosa CF 'B' (10 puntu)**; **16. Intxurre KKE (3 puntu)**.

HURRENGO JARDUNALDIA

Lagun Onak	-
Tolosa CF 'B'	-

Intxurre KKE	-
Aretxabaleta 'B'	-

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

ZAZPIGARREN JARDUNALDIA

Lauburu KE	8
Juventud del Circulo	2

SAILKAPENA

1. Zierbana (18 puntu); 2. Atenea Ikusnet (16 puntu); **3. Lauburu (16 puntu)**.

HURRENGO JARDUNALDIA

Castro Urdiales	-
Lauburu KE	-

NAZIONAL B MAILA

SEIGARREN JARDUNALDIA

Laskorain Ikastola	2
Bilbo	2

Euskalduna

Irish Pub Shepherds-Egintza

Transportes Lakuntza	5
Orioko Tabernak	1

SAILKAPENA

1. Concepto Createch (18 puntu); 2. Bilbo FS (16 puntu); 3. Donostia-ko Zuzenbidea (15 puntu); **4. Laskorain Ikastola (13 puntu)**; **12. Transportes Lakuntza (7 puntu)**; **14. Irish Pub Shepherds-Egintza (3 puntu)**.

HURRENGO JARDUNALDIA

Jarrilleros	-
Laskorain Ikastola	-

Irish Pub Shepherds-Egintza	-
Zarautz	-

Concepto Createch	5
Transportes Lakuntza	1



Barriolak aurrera jarraitzen du. HITZA

Laskorain Ikastolak 2-2 berdindu du Bilboren aurka neurketa zail batean

INAKI EGIZABEL

Neurketa korapilatsua eta borrokatua jokatu zuen Laskorainekin joan den larunbatean Usabalen. Aurrean bisitari, duela denboraldi gutxi Ohorezko Mailan aritutako Bilbo eraberritua izan zuen. Ordu-arte jardunaldi guztiak garaipenetan bihurtu zituen taldeak, baina amaierako puntu banaketak gehiago ase zituen bilbotarren desirak Ikastolakoekin baino.

Honelaxe da berdinketak iabeti garaipenetik gehiago izaten du talde batentzat eta porroterik gehiago besterentzat, eta larunbatean partida amaierako egoera ez zen salbuespena. Azken bozinarako 30 segundoren faltan binakoa erdietsi zuten bilbotarren bisiak genituen argibiderik onena.

Norgehiagoka maila handikoa suertatu zen oso. Lehen zatian, jokoa eta baloiaren jabetza orekatuak, norbaitek agintzekotan etxeokoa izan genituen agintari

eta markagailuan ere abantaila eskuratu zuten *Barack* Telleriak sarturiko golari esker; eraso posizionalean talde guztiak buruturiko eta Pitagoras bera zur eta lur utziko zukeen triangulaketa bati amaiera ipiniaz.

Aldageletatik bueltan, teknikoki eta taktikoki ezin hobe hornituriko bizkaitarrak «entxufatuagoak» kantxaratu ziren eta beraiek izan ziren nagusi minutu dezentetan zehar.

Endika atezainaren lidertzapen ordea, horitxo defentsak bigain erantzun zion erronkari eta hau gutxi ez balitz, jokaldi solte batean Barriola kapitain adoretsuak bigarrena egin zuen.

Amailerako bost minuturen faltan, partidak kontrolpean zirudienean, bilbotarrek atezain jokalaria ipini zuten kantxan, jokoa erabat ireki zelarik ezinbestean. Minutu zirragarri horietan, bi taldeek jokaldi bikainak burutu zi-

tuzten eta gol aukera argi franko sortu bi ateetan. Baina, zutoinkada eta ez zutoinkada, horitxoek ez zuten partida ixten asmatu eta bilbotarrek aldir, epaileek erabakitako etxekoek bi minutuko gutxiagotusuna ederki aprobetxatu zuten abantaila murrizteko eta gorago aurreratu moduan, amaierarako 30 segundoren faltan binakoa egin zuten.

Kontuak kontu, Javi Mugikaren mutilek denboraldi hasiera oso ona osatu dute, egutegi hasiera gogor batean, sei jardunalditan, lau garaipen, berdinketa bat eta porrot bat pilatuaz. Saikapeneko goiko bagoian kokatu dira beraz, eta horitxe eutsi beharra dago orain, denboraldia luzea baita.

Larunbatean etxean lorturiko puntua Javi delegatuak, Javi entrenatzaileak eta Endika, Telleria, Barriola, Murgi, Gil, Otxoa, Sal-dias, Txiki, Illunbe, Elola eta Aratz jokalariek lortu zuten.



Laskorain Ikastolak etxean berdinketa lortu zuen asteburuan. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala


Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermarekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Mendi bizikleten Zeharkaldia

TOLOSA • Olarrain auzoko jaiki azkenera iritsi dira. Herenegun, Lagun Artea elkarteak antolatuta, XXII. Zeharkaldi Herrikoia jokatu zen. Mendiko bizikleten gainean, partaide ugari irten ziren Olarraindik. s.comez

Danenako pultsulariak puntaren puntan

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Danena Halterofilia Taldeko kideek azken aste hauetan hainbat txapelketa jokatu dituzte. Hona hemen taldekideen emaitzak:

Berriozarren, Euskadiko Txapelketa

Urriaren 2an, 17 eta 15 urte azpiko lehiak jokatu ziren. Azken maila honetan, Asier Gallego eta Unai Calvo bigarren postuansailkatu ziren. 17 urte azpikoetan, postu bera lortu zuten Danenako ondorengo pultsulariek: Adrian Sasiain, Danel Lopez, Joseba Arrate, Kellyam Quintana eta Koldo Sarachok.

Iruñean, Espainiako Txapelketa

Urriaren 16an, 15 urte azpikoan lehia jokatu zen. Asier Gallegok

laugarren postua lortu zuen 56 kiloko kategorian. 77koan, Unai Calvo ere laugarren gelditu zen.

Laudio, Euskadiko Liga

Urriaren 24ean hainbat txapelketa jokatu ziren Ligaren baitan. Danenakoek oso emaitza onak lortu zituzten: Kadeteetan, Koldo Sarachok, Danel Lopez, Joseba Arrate eta Kellyam Quintanak Gipuzkoako lehen postua lortu zuten. Promesetan, Adrian Sasiain, Ibon Eguskiza, Ionut Dambu eta Ibon Eguskiza Gipuzkoako lehenak izan ziren.

Espainiako Txapelketa

Azaroaren 10ean jokatu da 17 urte azpiko Espainiako Txapelketa Madrilén. Bertan Danenako zortzi pultsulari egongo dira.



14 urte egin berriak dituen Asier Gallego Danenako pultsularia. HITZA

Barriolak aurrera jarraitzen du

ASIER IMAZ

Lau t'erdiko Pilota Txapelketaren baitan, leitzarren arteko partidajokatu zen iragan larunbatean. Nitro Txapelketan ez bezala, oraingoan Abel Barriola izan zen nagusi, 22-15eko emaitzarekin. Hala eta guztiz ere, Oinatz Bengoetxea handi bat ikusi zen Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Abel Barriolak bikain prestatu zuen partida. Pilota luze ibili zuen eta aukera izan zuenean tantoa

amaitzen bikain asmatu zuen, gehiegi arriskatu gabe. Oinatz Bengoetxeak ordea, markagailuari edozein mementotan buelta emango ziola zirudien. Bi leitzarren artean sasoi batean aurkitzen da eta tantoa erraz amaitzeko gai dela erakutsi zuen. Maisuek soilik duten dohain horrekin, berriro ere edozer gauza egiteko prest dago Bengoetxea VI.a.

Biak ala biek, aparteko ikuskizuna eskaini zuten Labriten.

Final zortzirenetan, Retegi Bi

Barriolak, laz ezustea eman zuen pilotaria edukiko du aurrean oraingoan. Retegi lau t'erdian bikain moldatzen da eta zail izango ditu gauzak leitzarrak. Partida non eta noiz jokatu den oraindik erabaki gabe dago, baina irabazten duenak azken ligaxkako txartelak lortuko du, beste hiru pilotariek batera. Orain artean bezala, ziur hemendik aurrera ere Barriolak zeresana ematen jarraituko duela.



BERRIA egunkariarekin DOAN

ATLAS HISTORIKOA
EUSKAL HERRIEN HISTORIA

Munduaren bilakaera Euskal Herriko historiaren bidez ezagutzeko liburua

Gure errealitatea ezagutzeko oso baliagarria

Azaroak 5, ostirala,
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan

EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

Euskal Herriko historiaren urrats nagusiak biltzen dira atlas honetan. Historiaurretik gaur egunera bitarteko hainbat gertakari ezagutzeko kontakizuna da.

Horretarako, irudia ballabide garrantzitsua da: ehunka argazki, marrazki eta mapaz gain, hainbat eskema eta jakinarri agertzen dira, gure herriko historiaren ikuspegi orokorra eta argia izan dezagun.

Babesleak:

- Arabako Foru Aldundia
- Departamentu Foral de Artea

GIPUZKOA
zuzok, aurrera

berria



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Udaltzaingoa jakinarazi duenez azaroaren 4ean eta 5ean ziklomotorrak aztertzeako estazio mugikorra Tolosara etorriko da, San Esteban auzoko ferialekura. Txanda hartzeko 943 62 63 00 zenbakira deitu daiteke.
■ **Tolosa.** Hilaren 19an Itziar-Zestoia mendia ibilaldia eta ondoren bazarra jatea antolatu du Alpino Uzturre mendiko elkarteak urtea amaitzeko. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, 943 652789, alpinozturre@hotmail.com).
■ **Tolosa.** Haritze jubilatu elkarteak irteera antolatu du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko

abiadura zirkuitua bisitatu. Izen-ematea, elkartean.
■ **Tolosa.** Fronton kafetegiak antolatuko X. Mus Txapelketa Azkara azaroaren 13an izango da Beotibar pilotalekuan 16:30etik aurrera. Izena fronton@jeub.org helbidean edota 943 65 14 70 telefono zenbakian eman daiteke.
■ **Tolosa.** Zezen plaza auzoko bizilagunek urtero bezala afaria egingo dute, azaroaren 6ean. Izen-ematea, ohiko lekuetan.
■ **Zizurkil.** Hernandorena IX. Ipuin Lehiaketa. Udaleko Euskara sailak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo jendearen

artean deialdia egiten du. Lehiaketako oinarriak eskuragarri daude Udal bulegoetan.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Inestable GKO Galleryren produkzioaren erakusketa ikusgai Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Irudiak erakusketa GKO Galleryn.
■ **Tolosa.** Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik.
■ **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa ikusgai Aranburu jauregian.
■ **Tolosa eta Alegia.** Lore lehorre-

kin egindako lanak ikusgai Tolosako Lanbroan eta Alegiako Jubilatuen tabernan.

■ **Tolosa.** Indonesiako Txotxongiloak erakusketa Topic-en.
■ **Tolosa.** Ertza erakusketa GKO Galleryn.
■ **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek egindako obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.

Kultur Asteak

■ **Oresa.** Zizareak belarrietan, musikaren boterea hitzaldia eskainiko du bihar Xabier Erkiziak, Kultur Hamabostaldiaren baitan. 21:30ean izango da saioa.

Zinema

■ **Tolosa.** Carantchofilma ikusgai izango da gaur 20:30ean Leidor antzokian. Ikuslearen eguna da gainera.
■ **Tolosa.** Bihar, Mugarik Gabek antolatuta, El velo de Berta filma ikusgai izango da 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Marta Olarreaga, Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Lekunberri.** Mendia Barriola, Aralar, 25. 948 50 40 71.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak
Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.
agurrak



Kolore eta oroitzapenen bilgune

GIZARTEA Urteroko ohiturari jarraituz, kolore biziz jantzi ziren atzo inguruko hilerriak. Santu Guztien Egunean edo hildakoengan, ohikoa da hilerria joatea loreak aldatzera edota errautsak bota diren tokira bisita bat egitea. Izan ere, atzokoa bezalako datak, joan direnak oroitzeko pentsaturik daude. Honekin lotuta, meza bereziak ere ospatu zituzten eliza gehienetan. Bestalde, gizarte kontsumista honetan, egun berezi hau horretarako, hau da, kontsumitzeko aitzakia ere bihurtu da. Horren adibide, azaroaren leian, urte osoan saldu ez diren lore guztiak agortzen direla. Gainera, hilabete bat aurretik gutxi gorabehera, azoketan lore eskaerak asko igotzen dira. Denek nahi izaten baitute lore sortarik ederrena eman falta den horri. E. EZEIZA

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>